

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

ARTZINIEGAKO UDALA
AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko uztailak 23
Ordua: 09:00 – 10:00
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Miren Izaskun Perez Barragan
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Maria Lorente Burgos, Joseba Mirena Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoia azaldu dutenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. SAUR-1 sektorearen xehetasunezko ikerketa behin betiko onartzea.

Joseba Elejalde Ribacoba irten egin da bozketara eramaten den akordioarekin interesak izateagatik.

Alkateak akordioaren testua irakurri du:

***“2018ko UZTAILAREN 17an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO
BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.***

Kontuan hartuta, 2018ko maiatzaren 9ko 96. zenbakidun Alkatetzako Dekretuz “La Hormaza”

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

izeneko SAUR-1 Sektorean eragiten duen Xehetasunezko Ikerketaren proiektuari hasierako onarpena eman zitzaiola, "La Hormaza" SAUR-1 Sektorearen Plan Partzialean ezarritako zehaztapenak aldatzekoa, jendaurrean ipini da hogeit egunez, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 56. zenbakidunean, 2018ko maiatzaren 16an ipini, Noticias de Álava egunkarian 2018ko maiatzaren 16an iragarri eta udaletxeko iragarki-oholean jarri ostean.

Kontuan hartuta, era berean, jabedunei eta Xehetasunezko Ikerketaren lurralde-eremuaren barnean dauden zuzenean eragindako gainerako interesdunei jakinarazi zitzaiela.

Kontuan hartuta, jendaurrean ipinitako epean EZ zela alegazioarik aurkeztu.

Legez ezarritako izapidea eginik, eta 2018ko uztailaren 13ko Idazkaritzaren ebazpen-proposamena ikusirik, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. Xehetasunezko Ikerketaren Proiektua, "La Hormaza" SAUR-1 Sektorearen Plan Partzialean ezarritako zehaztapenak aldatzekoa, eta "La Hormaza" SAUR-1 Sektorearen Plan Partzialean ezarritako enpresa hornitzailearen eskakizunen jarraituz oinezkoen ibilbideen lur-arraseko berriak seinalezatzea, partzeletan lurrari eusteko lanak egitea eta elektrizitate-hartunea egitea helburu duena, behin betiko onartzea.

BIGARRENA. Behin betiko onarpenaren Akordioa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA. Akordio honen berri ematea jabedunei eta Xehetasunezko Ikerketak zuzenean eragindako gainerako interesdunei, Hirigintza arloan eskumena duen Foru Organoari jakinarazteaz gainera.

LAUGARRENA. Alkateari Akordio hau erdiesteko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko boterea ematea".

Akordio honekin amaiera ematen zaio administrazio-bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin daiteke zuzenean Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenean bi hilabeteko epearen barruan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko legeko 46.1. artikuluekin bat etorritz.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Unai Gotxi Kastrexana: bai, besterik gabe, denbora asko daramagu gai honekin udaletxe barnean, eta baita kanpoan ere. Tira-birako denbora asko izan da akordio honetara iristeko, zeinetan guk abstentzioa emango dugun.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu taldetik (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (3);

Onartuta geratu da.

2.- Murua Arquitectos S.L.P. sozietateak ipinitako errekurtsua ezestea.

Alkateak xedapenen atala irakurri du:

“2018ko UZTAILAREN 17an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Gaia: MURUA ARQUITECTOS S.L.P. sozietateak HAPO plana idazteko aurkeztutako eskaintza ez onartzearen aurrean ipinitako berraztertze errekurtsua

Ikusirik, Artziniegako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa (aurrerantzean IEE) idazteko errekurtsogileak aurkeztutako eskaintza ukatzen duen 2018ko maiatzaren 3an osoko saioan hartutako akordioaren aurrean 2018ko ekainaren 11n MURUA ARQUITECTOS S.L.P. merkataritza-sozietateak aurkeztutako berraztertze errekurtsua.

Kontuan hartuz, errekurtsogileak eskatzen duela akordioa baliogabetu, ezeztatu eta ondoriorik gabe uztea, esku-hartzeak atzera botatzeko eta aurkeztutako eskaintza azalean ezarritako irizpideekin bat etorri baliogabeko eskatuz, hurrengo oinarriak aintzatetsiz:

- *Aipatzen du pleguetan agertzen diren irizpideekin bat etorri onargarria den eskaintza bat egonik, ezin dela lizitazioa mortu gisa deklaratu, ezta xede bera duen prozedura berri bat ireki ere.*

- *Adierazten du administrazio-baldintza partikularren Pleguan ez dela aurreikusten eskaintza ukatzeko aukera B gutun-azalean agertu behar den dokumentazioarekin lotuta ez-betetze bat gertatzen denean. Pleguan ezartzen denez, kontratazio-mahaiaren lehen egintzan, Mahaiak haren hautaketa-irizpideen (pleguko 7. klausulan zehaztuak) arabera ziren enpresak zehaztuko ditu, lizitaziorako onartuak, ukatuak eta ukatzearen arrazoiak berariaz adierazita. Uste duenez, Pleguan baztertze beste arrazoi batzuk berariaz aurreikusten ez direnez, soilik hautaketa-irizpideak betetzen ez dituzten eskaintzak ukatu ahalko dira, eta hori ez da kasu honetan gertatzen.*

- *Ulertzen duenez, betekizun formal bat ez betetzeak, hots, gehienezko orrialde kopuruari dagokiona, ez du justifikatzen berez lizitaziale bat prozeduratik kanporatzeko erabakia. Adierazten duenez, soilik kanporatzea onartu ahalko litzateke baldin eta irregularitasuna berdintasun-printzipio bat urratzetik eratorriko balitz, baina ez da halako urraketarik gertatzen kasu honetan, izan ere, ez*



dago beste lizitatzailerik. Horrenbestez, bere ustez proportziorik eza ageri da kanporatzeko adostutako neurriaren eta eskaintzaren ez-betetze mailaren artean.

- Memorian Zaldondo udalerriri egiten zaion aipamenari dagokionez, bere ustez, axolarik ez duen idazketa-akats bat da, eta ezin da ulertu horrek suposatzen duenik proposamenak Administrazioak eskaintza ezagutzeko funtsezkotzat jotzen duena argiro ezagutzeko eragozten duten kontraesan, ez-aipatze, errakuntza edo zirriborroak dituenik. Beraz, ukatzeko arrazoi hori arbitrariotzat jotzen du eta, horrenbestez, baliogabea.

- Inguruabarrak kontuan hartuz, Mahaiak aurkeztutako eskaintza konpontzea eskatzeko aukera eman dezala adierazten du, ezohiko gisa eskaintza modu puntualean zuzendu edo osatzeko aukerarekin, betiere, azalpen edo ageriko akats materialen zuzenketa bat baldin bada, proposamenean egiaz eskaintza berri baten baliokide lirakeen aldatetak suposatu gabe.

Kontuan hartuz egokitzen jotzen dela **ezestea** aurkeztutako berraztertze errekurtsoa hurrengo funtsen arabera:

- Egiaztatutako eta errekurtsogileak ukatu gabeko kontua da aurkeztutako proposamena ez datorrela bat HAPO plana eta Artziniegako udalerriko IEE ebaluazioaren prozedurari dagozkion agiriak idazteko zerbitzuak emateko kontratuaren esleipenerako onartutako Administrazio Baldintzan Pleguko 18. klausulan eskatzen direnekin. Berariaz adierazten da lizitatzailleek gehienez DIN A-4 formatuko 30 orri, bi aurpegitara idatzita, eta Azalean ezarritako formulekin kuantifikatu ezin diren eskaintzak balioesteko irizpideekin bat etorritik haztapenerako alderdiak modu argi eta zehatzean jasotzen dituen memoria bat aurkeztu beharko dituztela, eta enpresa errekurtsogileak aurkeztutako eskaintzak ez du baldintza hori betetzen.

- Pleguan bertan, 19. klausulan, beste arrazoi batzuen artean, ezartzen da ez direla onartuko Administrazioak eskaintza aintzatesteko funtsezkotzat jotzen duena modu argian ezagutzea eragozten duten kontraesan, ez-aipatze, errakuntzak edo zirriborroak dituzten proposamenak, edo aztertutako dokumentazioaren eta onartutakoaren artean bat-etortzerik agertzen ez dutenak. B gutun-azalak irekitzeko Kontratazio Mahaiaren Egintzan, 2018ko otsailaren 14an elkartuta, agerian geratzen da aurkeztutako eskaintzan sarritan aipatzen dela Zaldundoko Udala eta 18. puntuan aurreikusitako gehienezko orri kopurura gainditu egiten dela, hori kanporatzeko nahiko arrazoi den erabakitze txostena eskatuz. 2018ko apirilaren 9an Idazkaritzak igorritako txostenean ondorioztatzen denez, aplikagarri den legeriaren arabera, Mahaiak aurkeztutako proposamena ukatu ahalko du, argudiatutako ebazpen bidez. Adierazten duenez Kontratzuko Errekurtsoen Auzitegi Nagusiak 1060/2015 Ebazpenean ikusi zuen, lizitatzaille batek aurkeztutako eskaintza bati dagokionez, pleguetan ezarritako gehienezko orri kopuruaren bikoitza zuela, ondorioztatuz ez-betetze kualitatibo bilakatzen duen kopuru aldetiko tamaina horrek lizitatzaillearen arteko berdintasun-printzipioan eta ez diskriminaziorako printzipioan eta kontratazio publikoaren efizientzian eragina izan dezakeela, eta horrek lizitatzaillea deitutako lehiaketa arautzeko pleguak ez betetzeagatik kanporatzea justifikatzen du. Antzera agertu zen Euskadiko Kontratzuko Errekurtsoen Administrazio Organoa abenduaren 15eko 137/2016 Ebazpenean, enpresa bat lizitaziotik kanpo utzi zuenean Pleguetan aurreikusten zen gehienezko orri kopurua gainditzeagatik. Halaber, txostenean aipatzen denez, Kontratzuko Errekurtsoen Auzitegi Nagusiak



arau orokor modura du deklaraturata hasiera batean Pleguetan formalak baino ez diren manu mota horiek, aurkeztutako eskaintzen izaeran eta kalitatean eragina ez dutenak, nolabaiteko malgutasunez interpretatu behar direla, haien ez-betetze hutsal batek gainerakoan erabat onargarri izan daitezkeen eskaintzak automatikoki kanporatzea eragin gabe, kasu honetan kontratazio Mahaiak ebaztitakoari helduz.

- Kontratazio mahaiak B gutun-azalean hautemandako irregulartasuna ikusirik eta Idazkaritzak igorritako txostenarekin bat etorriz, proposatzen dio Udalbatzari aurkeztutako eskaintza uka dezala Administrazio Baldintzen Plegua ez betetzeagatik, gehienez aurreikusitako hedadura gainditzen duelako eta Memorian Zaldunduko udalerrria aipatzen delako sarritan, adibide modura aipatuz Memoriako 55. eta 58. orriak eta ulertuz proiektuan Artziniegako udalerriarekin bat etor ez daitezkeen zenbait datu ematen direla. Mahaiak adierazitako argudioa onartu egin zuen Udalbatzak eta 2018ko maiatzaren 3ko saioan aurkeztutako eskaintza ukatu zuen.

- Aipatu prozeduran aplikagarri den araudia, hots, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 145. artikuluan xedatzen denez, interesdunen proposamenak bat etorri beharko dira administrazio baldintza partikularren pleguan aurreikusitakoarekin eta proposamenak aurkezteak suposatzen du enpresariak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horietako eduki osoa, inolako salbuespenik gabe. Aurkeztutako eskaintzak ez du betebeharrak hori betetzen eta kontratazio-organoak ulertu du berau ukatu egin behar dela eta lizitazioa mortu utzi behar dela eskaintza teknikoaren kontraesanak oinarritzat hartuz, Pleguan gehienezko orri kopuruari dagokionez ezartzen diren baldintzekin ez datorrelako bat. Ezin da eskaintza onargarritzat hartu, kontuan hartuz hartako memorian, ekonomikoki balioetsi ezin daitezkeen alderdi teknikoak buruzkoan, gainera hura aurkezteko baldintza formalak urratzen direla, kontraesan eta desadostasuna agertuz, Zalduondoko Udala aipatuz, eta Udalak hori nahikotzat jo du proposamena ez onartzeko kontratazioa arautzeko Administrazio Klausulen Pleguko 19. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Kontuan hartu da erredakzio-taldeak Artziniegako udalerriri dagozkion baldintza egokiak jakitearen garrantzia, eta hori eskaintza teknikoaren memorian ahuldu egiten da beste udalerririk bat aipatzen baita.

Kontuan hartuz horri buruz kasu honetan aplikagarri den Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatzen dena, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko Lehenengo Xedapen Iragankorrean adierazitakoarekin bat etorriz, non aurreikusten baita Lege berria indarrean sartu aurretik hasitako kontratazioen espedienteak aurreko araudiaren arabera arautuko direla.

Udalbatza honek, osoko bilkuran elkartuta **2018ko ekainaren ... (e)an**, (gehiengoaren adierazi) ...ren arabera

ADOSTU DU:

PRIMERO.- Ezestea Artziniegako udalerriko HAPO plana eta IEE ebaluazioa idazteko errekurtsogileak aurkeztutako eskaintza ukatzen duen 2018ko maiatzaren 3an osoko saioan hartutako akordioaren aurrean 2018ko ekainaren 11n MURUA ARQUITECTOS S.L.P.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

merkataritza-sozietateak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, egiaztatzean aurkeztutako proposamena ez onartzearen arrazoia aplikagarri den kontratazio-araudiarekin bat etorriz kontratazioa arautzen duen Baldintzen Pleguan aurreikusitako baldintzak ez betetzea dela.

BIGARRENA.- *Akordio honen berri interesa duen orori ematea, eta jakinaraztea haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean”.*

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Bat ere ez

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- Katuen koloniak Kontrolatu eta antzutzeko Urteko Plana garatzeari buruz Artziniegako Udalaren eta Hirua elkartearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, 2018.

Alkateak akordioaren proiektua irakurri du:

“AKORDIO-PROIEKTUA

Ikusirik Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2018ko uztailaren 18an erregistratua, 775 zenbakidun sarrerarekin, Artziniegako Udalerriko katuen koloniak kontrolatu eta egoera hobetzeko.

KONTUAN HARTUZ hitzarmen horretan Udalak gehienez urtean bi mila euroko diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen duela.

KONTUAN HARTUZ Hitzarmen horren indarraldia 2018ko abenduaren 31n amaituko dela.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

KONTUAN IZANIK diru-laguntzaren xedea KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEA dela, non katuak harrapatu, antzutu eta askatzea, kolonien saneamendu higieniko eta sanitarioa, eta kolonien bizilekuak egokitzea barneratzen den.

KONTUAN IZANIK badela aurrekontuan kontsignazioa, 311.481.001 aplikatuz, izaera nominatiboaz. Diru-laguntzaren justifikazioa aurrekontua egikaritzeko Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 29. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren baitan geratuko dela.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22.2. artikulua arabera, diru-laguntzak zuzenean eman daitezke, Aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusiak, horretarako sinatutako Hitzarmenetan jasotako baldintzetan, non diru-laguntza horretan aplikagarri den araudia arautzen baita.

*Horregatik guztiagatik, Udalbatzari proposatzen zaio, bere eskuduntzen arabera, har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

***LEHENA.-** Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEKO jarduerak finantzatzeko helburua duena.*

***BIGARRENA.-** Alkatezari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa sinatzeko."*

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Bat ere ez

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoak (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Alderdi Popularraren mozioa Erretes Tudelako errepideari buruz.



Joseba Elejalde Ribacoba: egun on guztioi eta mila esker beste behin osoko bilkura honetara bertaratzeagatik. Alderdi Popularrak aurkeztutako mozio honen zioen azalpenaren arrazoia da maiatzaren 31n Erretes Tudela auzorako sarbide-errepidean lur-jausi bat gertatu zela, nahiko arriskutsua zen lur-jausia galtzadan. Alderdi Popularrak maiatzaren 31n jakin zuen horren berri, zubi zen. Alderdi Popularrak hilaren 5ean idatzi bat egin eta udaletxean sartu zuen, eskatuz Udalar Arabako Foru Aldundiarekin harremanetan ipin zedila galtzada edo errepidea lehenbailehen konpontze aldera. Halaber, Alderdi Popularra PP alderdiko batzarkide batekin jarri zen harremanetan, Pedro Garcia jaunarekin, errepideak zaintzeko zerbitzuari lur-jausi hori konpontzeko premia eta presaren berri emateko. Hainbat argazki helarazi ziren. Horietan ikus zitekeenez, erori ez den errepideko zatia zulatuta dago erabat, oso modu arriskutsuan. Ipin zitu zuten kono normal eta txiki batzuen ordez, kono handiago eta argidun batzuk ipin zitzatela lortu genuen, eta beno, hilabete beranduago abiapuntuko egoera berean gaudela ikusten dugu, handik ez da ia inor igaro, errepideak berdin jarraitzen du, asteburu honetan Madalenako festak igaro dira auto ugariren joan-etorriarekin, tona handiko kamioiak pasatzen dira handik, eta beno, Alderdi Popularretik Udal honi eskatzen zitzaion berriz ere Arabako foru Aldundiarekin harremanetan ipin zedila, beste behin ere, obrak lehenbailehen egin daitezten. Uste dugu hilabete nahikoa dela auzo baterako sarbide-errepide bat konpontzeko, non egiaztatu baita eraispena larria izan dela eta, beno, bide horretako edozein erabiltzaile kalte zezakeela. Beno, era berean eskatu genuen baldin eta Aldundia 15 eguneko epean, jakina honi sarrera ekainaren 29an eman zitzaion, 15 eguneko epean bide hori konpontzeaz arduratuko ez balitz, Udalak egin zezala eta ondoren tira, Aldundiarekin dagokion akordioa erdietsi zezala. Onartezina dena da, eta Alderdi Popularrak sekula onartuko ez duena, zera da, beti, beti, gauza bat eskatzen den bakoitzean, edozein Instituziori eskatzen zaiolarik ere, horrenbeste denbora luzatzea. Ezin dugu onartu auzo batera sartzeko errepidean lur-jausi bat izatea, horrek duen arriskuarekin, eta hilabete beranduago soilik esatea eguraldi txarragatik ezin direla obrak egin, ikusi dugunean negu gorrian Burgosekin komunikatzen den errepide bat erori eta astebetean irekita zegoela. Uste dut Udaletik gauzak argiago izan beharko genituzkeela, aurka egin behar dugu, edo bederen oso argi izan behar dugu goiko administrazioen aurrean ezin gaituztela hemen alboratuta eduki, ezin dugula egon denbora, dirua edo gogoa noiz izango duten zain, herri honetako auzo bati zerbitzu zuzena ematen dion errepide bat konpontzeko. Eta esaten dudan moduan gure erantzukizuna da eta Udalaren erantzukizuna, Gobernuko taldearena, Aldundiari eskatzea, denbora-tarte zentzuzko batean, eta uste dut zentzuzko denbora-tartea dela hilabete eta erditik gora, denbora hori baitaramagu zain, konponketa hori egin dadin. Horregatik dakarkit mozio hau Udalera, eztabaidatu dadin. Eta hiru puntuak argiak dira: "Artziniegako Udalak bere desadostasuna erakuts dezala Arabako Foru Aldundiak gai horretan erakutsitako jardunarekin. 2. Artziniegako Udalak eska diezaiola Arabako Foru Aldundiari galtzada konpontzeko lanak egin ditzala hurrengo hamabost egunetan". Arestian esan dudan moduan, ekainaren 29an aurkeztu zen mozio batez ari naiz hitz egiten. "3. Lanak egiten ez badira, eta errepidea udal eskumenekoa ez izan arren, Artziniegako Udalak konpromisoa hartuko du errepidea lehengo egoerara itzularazteko beharrezkoak diren obrak egiteko lehenbailehen".

Unai Gotxi Kastrexana: gure aldetik lehendabizi Aldundiak gai horri dagokionez Gobernuko taldeari zein erantzun eman dion jakin nahi genuke.



Joseba Elejalde Ribacoba: dakidan azken gauza da eguraldi oso txarra egin zuela. Alkate jaunak esana.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, esango didazu.

Alkatea: aipatu gu ekainaren 3an, igandez, jadanik harremanetan jarri ginela Aldundiaren larrialdi zerbitzuekin, egoerari buruzko argazkiak helarazi genizkien azter zezaten. Ekainaren 5ean berriro beste zenbait argazki helarazi genizkien, horiek ere posta elektronikoz, eta igorri diogu, ohiko jardunbidea da, jakinarazpena errepideetako zaintzaileari, egoeraren berri izan dezaten. Ildo horretatik Foru Aldundiak esan diguna da kaltea apur bat baloratzen dutela, eguraldi txarra zela medio bertan ezer gutxi egin zezaketela. Ikusi zuten segurtasun-neurriak apur bat indartuz haien ustez segurtasuna estalita zegoela. Arazoa konpontzeko irtenbide onena zein izango ote zen baloratzen ari zirela, inkak ezarriz edo harri-lubeta eraikiz, baina lehenbailehen egitea espero dutela. Aste honetan edo hurrengoan egiteko aukera aipatu zuten. Orduan, beno, horri dagokionez Udalak gorabeheraren gaineko jarraipena egin du, eta Aldundiarekin harremanetan egon gara egiten ari zirena apur bat ikusi eta zein neurri hartuko diren ikusteko. Eta Aldundia horretan ari da jadanik eta inolako zentzurik ez duena da Udalak egitea obrak berea ez den azpiegitura batean, ez dena bere eskumenekoa, eta uste dugu Udal modura nahiko baliabide ez dugula obra egiteko irtenbide egokia zein den zehazteko.

Unai Gotxi Kastrexana: hau da, ulertzen dudanez, ipini duten aitzakia bakarria eguraldi txarrarena izan da.

Alkatea: eguraldi txarra eta ondoren obraren balioespena ikustea eta egiteko irtenbide onena zein den ikustea, pikak edo harri-lubeta, edo...

Unai Gotxi Kastrexana: nik, ematen dioten arrisku-mailaren gainean galdetzen dut gehiago.

Alkatea: haiek ere begiratu dute pixka bat egoera eta lehenbailehen esku-hartzeko premia.

Unai Gotxi Kastrexana: lehenbailehen baldin bada, ez dira denbora baliatzen ari.

Alkatea: esku-hartzearen urgentzia, beharrezkoa urgentzia ote den ala ez, errepidearen egoera balioetsiz apur bat.

Unai Gotxi Kastrexana: nik zuk emandako erantzuna kontuan izanik, ezetz ulertzen dut.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni ez naiz ingeniaria, ez dakit azkenean lur-jausi bakoitzari zein balioespen edo puntuaketa ematen dioten. Nik dakidana da, argazkiak zuk ikusi dituzu, izan ere, asko sartu ditut, hilaren 5ean...

Alkatea: horren aurretik eman genuen abisua Aldundian.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik hilaren 5ean argazki ugari atera nituen, eta joan den hileko 29an beste hainbat atera nituen, non oraindik zulatuta dagoela ikus daitekeen. Gauza bat da errepidea guztia trinko dagoenez arrakalak dituela, baina ez da erortzen, hormigoizko plaka batekin dagoelako, baina beno, kasu honetan galipota da, baina zuk argazkia azpitik ateratzen baduzu 40 edo 50 zentimetro baino gehiago erabat zulatuta dagoela ikus dezakezu. Nola errepideari eusten zion horma erori egin den. Horrekin zera esan nahi dut, zu ibilgailu ertain edo handi batekin bazter-



babesera hurbiltzen bazara bi auto edo bi kamioi edo errepide horretatik igarotzen dena elkartzen dituzulako, errepidea eraitsi eta errepara joateko arrisku larrian zaude. Nik ez dakit hilabete nahikoa den ala ez, Aldunditik zerbitzuek uste badute errepide horrek ez duela inolako arriskurik, baina nik fisikoki ikusita errepide hori ez dagoela ibiltzeko esaten dizut. Barregura ematen duten kono batzuk ipini zizkiguten, barregura. Altuera honetako kono batzuk ziren. Ondoren jadanik metro batekoak edo 90 zentimetrokoak ziren kono batzuk ipini zituzten, argidunak, eta hirugarrenean, Alderdi Popularrak ekainaren 29an mozio hau sartzearen ondorioz, hesi moduko bat ipini zuten, beraz urratsak ematen joan gara talde politiko batek aurkeztutako larritasunaren arabera. Nik ez badut deus aurkeztzen, edo Udaletik bere garaian, hilaren 3an deituko ez bazenute, bada ez zen deus egingo. Kono txikiago bat ipiniko dut, ondoren jadanik kono handiago bat ipiniko dut, gero jadanik hesia ipiniko dut eta ondoren esango dut konponduko dudala eguraldi ona egiten duenean edo gorabehera ez dela horren larria. Nire ustez gorabehera larria da, oso larria. Eta hortik jende asko ibiltzen da joan-etorrian, eta hortik kamioiak ibiltzen dira. Banaketa-kamioiak, bi enpresei zerbitzua ematen dieten kamioiak, orduan hori balioetsi egin behar da. Eta Udaletik egin ezin duguna da, lehen kontsulta egin eta hilabete eta erdi igaro ostean, Aldundiaren zain egotea eguraldi txarra dagoela esaten diguten bitartean, hori gezurra baita. Ez du eguraldi txarrik egin. Nik uler dezaket ekaineko lehendabiziko astean, maiatzaren 31ren ondotik, eguraldi txarra egin zuela, bai, egia da, euria, euria eta euria egin zuen. Baina ondoren eguraldi ona egin du. Eta Aldunditik plangintza ona izan balute, planteamendu ona, eta gogoak, errepide hori une honetan konponduta legoke. Eta ez genuke eztabaida hau izango udaletxean. Errepide hori konponduta balego, nik, edo Alderdi Popularrak, ez genuke mozio hau sartu beharrik izango, herritarrak eta jendea Erretes Tudela auzora igo eta ez genuke arazo hau izango, eta uste dut Arabako Foru Aldundiaren aldetik utzikeria dagoela zentzu horretan.

Unai Gotxi Kastrexana: guk Aldundiaren erantzuna ikusita, mozioa babesten dugu erabat, jakina, Aldundia arrunki esanez "ezikusia egiten" ari zaigula ikusten da, eta batez ere kontuan izanik sarbide-errepide bat dela, auzo batera sartzeko bide bakarra, lotsagarria da. Orduan, guk mozioa babesten dugu, gauza bakarra Joseba, ez gaude ados inondik ere hirugarren puntuarekin. Gure ustez, Udaletik, espaloien obrekin esan genuen moduan, Aldundiari presioa egin behar zaio, eta ez azpijana egin. Horrenbestez, guk puntu hau kentzea proposatzen dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: Alderdi Popularraren aldetik ez dago inolako arazorik hirugarren puntua kentzeko. Baina ez da denbora gehiago itxaron behar errepidea birgaitzeko obra hori behingoz egin dadin eta, beno, izan dezagun... Nire aldetik arazorik ez.

Alkatea: egia esan hirugarren puntua ez zen oso logikoa. Udalak arloan ezagutza teknikoak izan gabe, esku hartu behar izatea...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik lřigo esango dizut hirugarren puntua presio modura dela, izan ere, nik badakit azkenean, ipini dut ez dela udal eskumenekoa errepide hori, foru errepide bat da, baina ezin gara egon Arabako Foru Aldundia Artziniegara begira noiz jarriko zain. Artziniegara ez badu begiratzen 6 hilabetetan, bada 6 hilabetez egongo gara errepidea horrela dugula. Horregatik eskatzen nion Udalari hori egin zezala. Ikusten badugu hau denboran luzatu egiten dela izan dadila Artziniegako Udala erabakia hartzen duena Artziniegako udalerriko auzo baterako sarbide-errepide bat konpontzeko, Arabako Foru Aldundiarekin erdietsi beharreko akordioa erdietsi ostean. Ezin duguna onartu da, eta berriro diot, ezikusia egin diezagutela. Ezetz. Arabako auzo bat da, hau



Arabako herri bat da, hau Arabako udalerrri bat da eta gure interesak defendatu behar ditugu, eta gure interesak, errepide alorrean lur-jausi bat denboran eta forman konpon dadila da, ez bi hilabete geroago. Izan ere, ia bi hilabete igaro dira erori zenetik, maiatzaren 30 edo 31n gertatu zela esaten ari gara eta. Niri lehen argazkiak maiatzaren 31n iritsi zitzaizkidan. Ni kanpoan nengoen. Aste hartan errepidea ongi zegoen, hain justu zubi hura erori zen. Idatzi bat sartzen da, Udalaren aldetik egin beharrekoa egiten da, Aldundiari argazkiak eta idatziak igorri zitzaizkion, baina bi hilabete beranduago ezin gara Arabako Foru Aldundiaren zain egon, eguraldi txarra egiten duela eta, egin duten ikerketa baten arabera arriskutsua ez dela uste dutela eta, ez dela arriskutsua? Bada orduan... eskerrak ez den ezer gertatuko, espero dut, baina inor igaroko balitz, norena izango da erantzukizuna? Zein teknikariri esango diogu, norena da erantzukizuna? Nork sinatu du? Izan ere, niri gustatuko litzaidake ikustea haien ustez errepide horrek obrak lehenbailehen egiteko arriskurik ez duela dioen txostena, gustatuko litzaidake jakitea zein teknikarik sinatu duen. Izan ere, niri pertsonalki, ikusten dudan moduan, nik errepidea ikusten dut, oso, oso arriskutsua iruditzen zait. Esan dut eta berriro diot, ez naiz ingeniaria, baina ez da beharrezkoa ingeniari izatea errepidea zein egoeran dagoen ikusita, erabat zulatuta, hori oso arriskutsua dela esateko.

Alkatea: berriro diot, esan duzun moduan, zu ez zara ingeniaria, ni ere ez, Aldundikoak dira ingeniariak, eta haiek ikusi behar dute zer-nolakoa den kaltea eta zein den irtenbide onena. Kasu honetan mozioa bozkatuko dugu puntu hori kenduta, gaizki dagoenik ere ez zaidana iruditzen, hots, Aldundiari bizkortasun gehiago eskatzea halako arazoak ebazterakoan.

Bozketa egiten da 3. puntua kenduz:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (3);

Aldeko botoak:

Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu taldetik (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP taldeko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- Artziniegako Udalaren mozioa TTA SAU sozietatearen lanpostuen eta lan-baldintzen eta Artziniegako industria arloko etorkizunaren defentsan, Enpresa Batzordeak aurkeztutako idatzian oinarrituta.



Alkatea: beno, hau da TTA sozietateko enpresa batzordeak aurkeztu duen mozioa. Ongi baderitsozue, aurkeztu duten mozioa irakurriko dut:

5.- ARTZINIEGAKO UDALAREN MOZIOA TUBACEX TAYLOR ACCESORIOS SAU SOZIETATEAREN LANPOSTUEN ETA LAN-BALDINTZEN ETA ARTZINIEGAKO INDUSTRIA ARLOKO ETORKIZUNAREN DEFENTSAN, ENPRESA BATZORDEAK AURKEZTUTAKO IDATZIAN OINARRITUTA.

Tubacex Taylor Accesorios enpresako lantaldea 2014. urteaz geroztik beren lanpostuak galtzeko etengabeko mehatxuan dago. Tubacex multzoko zuzendaritzak aurretiaz adostuta zegoen enpresaren hitzarmen baten sinadura atzera bota zuen birritan. Orduetik lantaldearen egoera jasanezina da; 2017an zehar aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat gauzatu da; kaleratze objektiboak, bidegabekoak eta, are, baliogabekoak egin dira, lantaldea 8 pertsonara murriztuz 2014ko irailetik 2018ko uztailaren 24ra bitartean.

Inbertsiorik ezaren ondorioz gaur egin enplegua ere ez dago bermatuta eta laneko harremanen politika lantaldeak urtez urte egindako ahaleginaren poderioz lortutako lan-baldintza batzuk eskasten ari da.

TTA enpresako lantaldeak, mehatxuekin eta beren lan-baldintzak eskasteko ahaleginekin nekatuta, joan den hilaren 10ean asanbladan, greba egitea adostu zuen 2018ko uztailaren 19, 20, 26, 27, 30 eta 31n. Zuzendaritzak, greba egiteko funtsezko eskubidea zer demokratiko gisa ulertzetik urrun, joan den hilaren 16an bi adiskide kaleratu zituen. Horrek jazarpen argia suposatzen du eta ez du inola ere laguntzen gatazkaren ebazpenean.

Tubacex Taylor Accesorios S.A.U sozietateko langileok helburu hauek lortu nahi ditugu mozio honen bidez:

- Gure egoera jendaurrean salatzea: ez dugu industria-proiekturik, eta, beraz, gure lanpostuak kolokan daude, eta, lanik gabe, oso egoera larrian geratuko ginateke.***
- Eta herri-erakundeen eta gizarte-eragileen engaiamendua eta esku-hartzea bilatzea. Ez dugu etsi nahi egoera bidegabe horren aurrean. Konponbide egokiren bat aurkitu nahi dugu lanpostu guztiak mantentzeko eta industria-jarduera iraunarazteko Artziniegan, lan-baldintza duin batzuk mantenduz.***

Langileok ez gara sortutako egoeraren errudunak, industria-proiektu honen bideragarritasunak Tubacex Euskadiko multinazionalaren apustu irmo bat eskatzen du, familien eta Artziniegako udalerrriaren etorkizunarekin konpromisoa hartzeko adina ahalmen eta kaudimen duen enpresa izaki.

Aurrez azaldutako guztiagatik, Artziniegako Udalari eskatzen diogu:

TTA enpresaren industria-jarduera iraunaraztearen alde eta lanpostuak eta lan-baldintzak gordetzearen alde agertzea.



Enpresako zuzendaritzari jakinaraztea plantillari tinko eutsiko diola, eta enpleguarekin eta lan-baldintzekin engaiamendu irmoa duela.

Eragindako gainerako herri-erakundeekin elkarlanean aritzea: Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, etorkizuneko industria-proiektua finkatzeko, bereziki enplegua eta lan-baldintzak babestuz.

Langileek beren lanpostuen alde egiten duten borrokan zuzenean laguntzea.

TTA enpresako langileak ez dira egonean geratuko, ahal diren esparru guztietan agertuko dira: enpresarekin berarekin egin beharreko negoziazioan, esparru juridikoan eta kale-mobilizazioan.”

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Unai Gotxi Kastrexana: lehendabizi, gure taldearen aldetik eta pentsatzen dut gainerako taldeen aldetik ere bai, gure elkartasuna adieraztea kanporatutako, kaleratutako langileekin, beren familiekin eta borrokan diren langileekin. Eta mozioari buruz, ezer gutxi dago esateko, aski argi geratzen baita. Kontu bakarra, Artziniegako industria-panorama deitu dezagunari so, argi izan behar dugu Udala inplikatzeko ez bada, ezer gabe geratuko garela, izan ere, CEL enpresarekin ikusi zen, gehien borrokatu zuenak lortu zuen gehien, eta espero dugu ez gertatzea kasu honetan gauza bera Tuabacex enpresarekin Artziniegan. Orduan guk, gure taldetik zera proposatzen dugu, mozioarekin batera, hiru taldeen aldetik gutun bat bidali dadila, erakundeei, Eusko Jaurlaritzari nahiz Aldundiari, irtenbide bat eskatuz eta, era berean, hiru alderdiak bertaratzeko beharrezkoak diren bilkurak egitea, gai honi irtenbidea eman eta, aldi berean, Artziniegako industria-egoeraren gaia jorrazteko. Bakarrik geratzen ari gara eta. Azken urteotan hutsik dauden pabilioiak baino ez dauzkagu eta, gaztandegitik hasita, Ortolatxipi, CEL, eta espero dugun hurrengo Tubacex ez izatea. Era berean, Alkatezari proposatzen diogu egiten dituen kontsultak eta eskakizunak modu ofizialean egin ditzala, uneak hala eskatzen du eta, izan ere, ofizialak ez diren bideak inora ez direla iristen ikusi dugu. Eta ez gaitzen geratu soilik mozioa onartzearekin, aitzitik, eska ditzagun egiazko irtenbideak Artziniegarako herriaren etorkizuna izan daitekeenaren inguruko ikuspegi orokor batekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik pixka bat Bilduk adierazitako hitzekin bat. Gure babesa erakustea TTA enpresako langile guztiei, beren lanetik kanporatuak izan diren bi pertsoneri, nik behin baino gehiagotan esan dut hemen Udaletik etorkizunean lan egin beharko genukeela, batez ere, Artziniega nora bideratu nahi dugun adierazten duen proiektu bat hartuta, industria mailan, turismo mailan eta maila guztietan. Duela urte asko daukagun defizit bat dela uste dut, errenten ondorioz bizi izan gara, eta halaxe da. 70-80 hamarkadetan hemen finkatu ziren bi fabrikeri esker bizi izan gara, eta oso ongi egon dira, oso ongi funtzionatu dute, baina globalizazioarekin, jakina, guztia aldatu egiten da eta enpresek gaur egun ekonomiari begiratzen diote eta deslokalizazioa gertatzen ari den zerbait da, maila guztietan, Aiaran ikusten ari gara, Enkarterrietan ikusten ari gara, eta hemen azken finean negozioa lehenesten da. Enpresek, azken finean, negozio handiagoa bilatzen dute hura dagoen lekuan. Baina egia da Eusko Jaurlaritzatik politika ekonomikoak, industrialak, bultzatu behar direla, horretarako dugu azken batean kupoa, azken finean abantaila hori ematen digun tresna bat daukagu, bada enpresak hemen gera daitezela

Ayuntamiento de Artziniega

(Alava)



Artziniegako Udala

(Araba)

bultzatzeko, Euskadin enplegua sor dezaten eta beno, XXI. mendearekin bat datozen eta garai horretara egokitutako hitzarmenak izan ditzagun. Eta berriro diot, nire elkartasuna baduzue, nire babesa baduzue, beste edozein enpresarekin bezalaxe, eta esan dudan moduan lan egitea baino ez zaigu geratzen, eta lan egitea Udaletik, baina Udaletik lan egitea ez soilik kasu honetan, baizik eta etorkizunera begira. Berriro diot, hemen negoziazio-mahai bat egon beharko litzateke Artziniegak zein norabide hartzea nahi genukeen jakiteko. Izan ere, Artziniegak azken berrogei urtetan garatu ez den industrialde bat dauka, norengana jo behar da. Pribatua izan, publikoa izan, Spri delakora, azken batean gauzak egin daitezke, gertatzen dena da ez direla egin. Errua, bada asko guztiona da. Nik uste dut horixe dela arazo nagusia, hemendik ez zaiola arazoari erreparatu, baizik eta partxeak ipiniz joan garela, adabakiak. Eta gaur egun dugun egoera dugu, hots, Artziniegako industriaren egoera, Aiarako beste leku askotan bezala edo Enkarterrietan bezala, den bezalakoa dela, hau da, larria, izugarria, eta milaka familia Damoclesen ezpata buru gainean dutela. Beste ezer ez dut esateko, Unaiak esan duen moduan gai honetan lan egitea, eta ez itzarotea Artziniegan erabaki bat hartzeko hurrengo enpresaren gainean ixteko mehatxua izan arte.

Alkatea: jakina erabateko elkartasuna TTA enpresako langileekin, oraintxe aldizkako greba garai batean baitaude, ostegunak eta ostiralak, eta jakina, era berean, elkartasuna kaleratu dituzten bi langileekin. Egia da urteotan egoera konplexua dugula, egoera konplexua bizi izan dugu CEL enpresarekin, non duela urtebete antzekoa ez, nik esango nuke okerragoa zen panorama bat geneukan, izan ere, hartzekodunen konkurtso batekin amaitu zuen, eta egon ziren negoziazioen barruan, luzeak izan zirenak, azkenik talde italiar bat sartu zen, talde italiar horrekin nik izan dut, eta noski badut, harremana, etengabeko harremanean nago Lucarteko zuzendaritza-taldearekin, proiektua zein neurritan ari den aurrera egiten ikusteko, eta zein aukera dauden etorkizun batean Artziniegarako. Irailean hasierako planteamendua nahiko txarra zen, izan ere, xaboiak ere ez zuen aski interesik, eta solairu hori ia biltegi moduan geratzen zen. Ondoren denborarekin, instalazioarekin eta apur bat fabriken egoera aztertuta, lantaldea mantentzeko interes pixka batekin, eta apur bat nik taldearekin izan nituen elkarrizketekin, hala Pascinni familiaren arduradunarekin nola zuzendari berriarekin, haiek CEL planta garatzeko interesa helarazi zuten, eta errealtatea da hasiera batean ez zegoela xaboiaren aldeko apusturik, orain badirudi baietz. Horrenbestez, xaboiaren zerbitzuaren kontsolidazioa da. Ondoren, era berean, bulegoetako dagokienez, administrazioko zenbait bulego hemen mantentzen ari dira eta, tira, eta negoziaren merkatuaren bilakaerari buruz ditugun elkarrizketak kontuan izanik, nik espero dut converting Artziniegara itzuli ahal izatea, eta epe ertainera converting-makina egotea berriz ere Artziniegan lanean. Horrenbestez, hau ez da oraingo kontua. CEL enpresarekin elkarrizketa asko izan ziren, baita hartzekodunen konkurtsoaren aurretik ere, hartzekodunen konkurtsoaren unean nik kudeaketa ugari egin nituen, hala Eusko Jaurlaritzarekin nola Arabako Aldundiarekin, eta baita konkurtso-administrariarekin ere, ikusteko prozedura horretan, non eskaintza egingo zuen enpresak zehaztuko zuen negozioa bideratzeko bere lehentasuna zein zen, baina ahal zen heinean jarduera Artziniegan gera zedila saiatzeko. Uste dut ez dela nahikoa, izan ere CEL enpresa oraindik, CEL enpresaren eraikina oraindik ez dago % 100ean, baina egia da emaitza 2017ko irailean, urrian, geneukana baino hobea dela, orduan panorama dezente okerragoa baitzen. TTA enpresaren kasuan, bai, bai, bai, esaten ari natzaizu urrian panorama dezente okerragoa zela, izan ere, hau biltegi bilakatzen ari zen ia. TTA enpresaren kasuan ere nik izan ditut, urte hauetan zehar, ez oraintxe bertan, baizik eta urte hauetan zehar, harremana izan dut hala enpresa batzordearekin, baita enpresarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin. Nolabaiteko kezka izan



dut enpresaren geroari dagokionez, eta TTA enpresan zegoen egoera helaraziz apur bat. Joan den astean Ahalduen Nagusiarekin hitz egiteko aukera izan nuen, ez nion gutun bat igorri, izan ere, bilkura bat izan genuen eta Ahalduen Nagusiarekin hitz egiteko parada izan nuen, TTA enpresaren egoeraren berri emateko ere bai, eta nola bi pertsona kaleratu zituzten eta nolabait prozedura honetan hori ere kontuan izan zezan. Halaber, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan izan naiz, ahal den heinean Eusko Jaurlaritzak enpresa batzordearekin bilkura bat izan dezan, enpresa batzordearekin egon gara, eta ostiral honetan TTA enpresako zuzendaritzarekin ere bilkura bat izan dugu. TTA enpresako zuzendaritzarekin bilkura bat gure kezka azaltzeko eman ziren urratsak zirela eta, egon ziren kaleratzeengatik, eta Udal modura enpresan dagoen egoerarekin dugun kezka eta, apur bat, ahal den neurrian eskatzeko, ez ahal den neurrian, baizik eta negozioa dadila eta langileekin adostasun bat bila dadila. Eta horixe da egiten ari garena. Ez da astebeteko kontua, urteetako kontua da, Alkatetza honetatik egiten ari garena, hala CEL enpresaren kasuan, nola TTA enpresaren kasuan, eta ildo beretik jarraituko dugu. Eta horri dagokionez koordinazioa izan dugu, eta oraindik dugu, Lucarten enpresako batzordearekin koordinazioa dugu, TTA enpresako batzordearekin dugun bezala, eta izaten jarraituko dugu. Eta horixe zen pixka bat esan nahi nuena.

Unai Gotxi Kastrexana: ni ez nintzen ari esaten egin dena edo zuk maila pertsonalean egin duzuna, baizik eta orain, nola dagoen ikusita, izan ere, esan dudan moduan CEL enpresarekin adibidea argia zen, elkartzen bazara eta Eusko Jaurlaritzara joaten bazara, Aldundira joaten bazara ate-joka orduan mugitu egiten dira, edo ez, baina mugitu egiten dira, Udal modura joanda, Institutio gisa. Eusko Jaurlaritzari aurrez aurre galdetu, zein plan duzue Artziniegari begira? Izan ere, haiek DOT direlakoetan adierazten dutena bete behar badugu etorkizun nahiko kezkagarria dugu. Aurrez aurre joatea, eta esatea irtenbide bat nahi dugula, Artziniegan bizi nahi dugula, jendea ez dadin joan egunero Bilbora, Gasteizera, lanera, eta guztion artean egin hori, elkarrekin. Elkarren artean egin dadila eta komunikazioak ere Udaletik egin daitezela, ofizialak izan daitezela, ziurtatzen duen paper bat izan dezaten.

Alkatea: Unai, nik Jaurlaritzarekin hitz egiten dudanean uste duzu ez diedala esaten?

Unai Gotxi Kastrexana: baina ez da gauza bera zu bakarrik joatea edo hirurok joatea, Iñigo.

Alkatea: barkatu, ni Alkatea naiz, ni Eusko Jaurlaritzarekin egoten naiz...

Unai Gotxi Kastrexana: baina erakusten duzun kezka ez da berdina. Zuri Udala osorik etortzen bazaizu, hiru taldea, indar gehiago egiten duzu.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut argi dagoela instituzio horietara eta kontaktu horietara Iñigo modura ez, Artziniegako Alkate modura Udala ordezkatzuz eta Artziniegako udalerrira ordezkatzuz joaten zarela. Uste dut hori horrela dela eta nahiko argi geratu behar da hori.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, jakina, Inma, ez da gauza bera atea Artziniegako Alkateak jotzea edo Artziniegako Alkateak jotzea oposizioko taldeekin batera elkartuta, elkarrekin etorkizun beraren alde.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, baina jakinarazi zaie sentimendu hori ez dela Artziniegako Alkatearen gobernuko taldearena bakarrik, Udal osoarena baizik.



Miren Izaskun Perez Barragan: ez da kopuru kontua. Kontua da berak Udal osoa ordezkatzeko duela.

Unai Gotxi Kastrexana: eta guk ere bai.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, baina bera da Alkatea, ezta?

Joseba Elejalde Ribacoba: nik uste dut eztabaida hau nahiko antzua dela. Lan-mahaien kontu horretara noa, oso modan baitaude. Berritot, hau da, Artziniegaren inguruan zer nahi dugun jakin behar dugu, eta guk ipini beharko dugu mahai gainean industria mailan zein garapen nahi dugun. Ez diezagutela goitik adierazi, izan ere, azken finean nik gauza bat argi daukat, Artziniegako industrialdea egin aurretik, Murgako industrialdea bete beharko dute, eta Murgako industrialdearen aurretik Amurrioko industrialdea, eta Amurrioko industrialdearen aurretik Laudion bat ipini, eta azken finean berdinetan gaude, Artziniegak lursail itzelak ditu, azpiegiturari dagokionez oso ongi dago, Bilbotik gertu baitago, portutik hurbil, baina noski, Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik Artziniega begiratzen badute laugarren, bosgarren edo seigarren bezala, Artziniegako Hondakin Uren Araztegiarekin bezalaxe da, bat-batean 2004tik 2008ra, 2008tik 2012ra, 2012tik 2017ra joan gara eta orain 2021-2017an gaude. Bost Hondakin Uren Araztegi ditugu aurretik, edo lau edo hiru gurearen aurretik. Azken finean hau gauza bera da, Artziniega balioan ipini behar da, eta niri guztiok islatuta geundeken mahai bat gustatuko litzaidake, non, jakina Alkateak izango lukeen hemen lantzen dena helarazteko ardura eta ondoren gizartearekin hitz egin eta herriarentzat zehazki zer nahi dugun ezagutu. Gure herria industriari dagokionez nola garatu, edo turismoaren ikuspegitik. Izan ere, turismoari dagokionez herri liluragarria dugu, eta ez dakigu horri behar besteko zukua ateratzen. Azken batean, hori da arazoa. Eztabaida dezakegu, hitz egin dezakegu, Aldundira joan gaitzake Eusko Jaurlaritzara, baina ez baldin badugu argi zer nahi dugun hemen Artziniegako Udalean, nekez helaraziko diegu besteiei zer nahi dugun. Hemen konpontzen saiatzen zailtasunak izango ditugu. Burura jo behar da Unaiak esan duen moduan, zuzen. Eta busti daitezela. Eta esan dezatela zehazki zer nahi duten Aiarako ibarrarentzat. Baina Aiarako ibarrarentzat bere osotasunean. Izan ere, niri oso ongi iruditzen zait Amurrioren aldeko apustua egitea, Laudion alde egitea, enpresa handien alde, baina herri txikiak ere hor daude, esate baterako, Artziniega, enpresa indartsuekin hainbat sektoretan, esate baterako, metalurgian edo papergintzan, edo beste sektore batzuetan, eta hori ere indartu egin behar da. Enpresen habi bat izatea, non edonork jar dezakeen, ekintzaile batek 200 metro pabilioi izan ditzakeen nahi duen negozioa finka dezan. Eta hori ez dugu. Ez dugu gaitasunik Artziniegako ekintzaile bati esateko, begira hor dituzu 7 pabilioi, 17 pabilioi, bidezko prezio batekin alokatu ahal izateko, zure jardueraren ekonomikoa gara dezazun ukuitu batean sartuta egon gabe, edo landa batean, edo ez dakit non sartuta. Egiaz hori baita hemen duzuna. Zuk hemen autonomo asko ikusten dituzu, azken batean, beren enpresa dutenak, edo beren enpresek izan dezaketenen elementu guztiak, batez ere eraikuntzan, landetan daudenak, egoera eskasetan, edukiontzia batekin, hondeatzeko makina batekin... Zuk ematen badiezu enpresa horiei, autonomo horiei, ahalmena ematen badiezu izan dezaten 200, 250, 80 edo 100 metroko pabilioi bat, haiek eskatzen dutena, behar dutena, herriaren irteeran, industria-zonaldean, ziurren aukera eta abagunea ematen ari zaitzaizkio hobeto saldu ahal izateko, ematen duten eskaintza hobeto egin ahal izateko, eta irudia eduki ahal izateko, horixe falta baita hemen, irudia. Ez dugu irudirik. Badira mundu guztiak ezagutzen dituen enpresak, baina zuk bat-batean bulego bat duzu, pabilioi bat duzu, eta hori irudia da. Irudia zentzu guztietan, enpresaren ikuspegitik, herriaren ikuspegitik eta hiriaren ikuspegitik, guztia beteta izatea, guztia

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

elkartuta. Eta ez izatea hemen partzela bat ez dakit zerekin, beste partzela bat han ez dakit zerekin, edo aita pabilioi bat utzi didanez hartu egin dut edo... egoera eskasetan. Uste dut hori dela Artziniegak duen premia eta orain arte inork ez dugu izan hori egiteko aukera edo gogoia.

Alkatea: beno, aztergai dugun kasuan gure babesa duzue eta orain arte bezala jarraituko dugu lanean.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6.- Kreditu gehigarriaren 4/2018 espedienteari dagokion aurrekontu egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko Kontu-hartzailetzaren ebaluazio-txostenaren berri ematea.

Alkatea: abisu bat da, aurrekontu egonkortasunerako araua urra dezakegula.

“AURREKONTU EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAILETZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA”¹

(Kreditu gehigarriaren 4/2018 espedientea)

1

Azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikularekin bat etorritik, tokiko Kontu-hartzailetzak Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko txosten bat taxutuko du, modu independentean igorriko dena eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentuetara gaineratuko dena.



4/2018 KREDITU GEHIGARRIAREN espedientea onartzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorritz, igortzen dut hurrengo

TXOSTENA

LEHENA. Aurrekontuak eta Tokiko Erakundeen gastu eta sarreretan eragiten duten gainerako esku-hartzeak eratu, onartu eta gauzatzeko garaian Aurrekontu Egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituko zaie, koherentea dena Europako araudiarekin, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 3., 4., 11., 12. eta 13. artikuluetan, eta Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 1., 2. eta 3. artikuluekin bat etorritz.

Herri Administrazioen Aurrekontu Egonkortasun modura ulertuko da egiturazko oreka- edo superabit-egoera. Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 eta 11. 4. artikuluetan adierazten dena betez, Tokiko Erakundeek ezin izango dute egiturazko defizitean erori, berau zikloko defizit doitu gisa (hau da, ezohiko eta aldi baterako neurriak kenduta) ulertuta. Horrenbestez, aurrekontuari dagokionez oreka- edo superabit-egoera izan beharko dute.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezartzen denez, gastu zenbakarriaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa gaititu. Gastu zenbakarri modura ulertuko dira hauek: erabilera ez-finantzakoak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren terminoetan definituta, zorraren interesak kanpo utzita; Europar Batasunetik edo beste herri administrazio batzuetatik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatzeko gastuaren zatia eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak. Gastuaren araua kalkulatzeko erreferentzia-tasa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratuko du, Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.3. artikulua arabera.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin beharko da, halakotzat ulertuta defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena.

BIGARRENA. Legeria aplikagarria hauek baldintzatuta dago;

— Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 4., 11., 12. eta 13. artikulua.

—Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikulua.

— Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua.

HIRUGARRENA. Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16. artikuluko 1 atalean in fine eta 2. atalean xedatzen denez, Tokiko Kontu-hartzaileak txostena



aurkeztuko du Udalbatzan Tokiko Erakundearen nahiz hartako organismo eta erakunde mendekoen egonkortasun-helburua betetzeari buruz.

Txosten horrek izaera independentea izango du eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentutara gaineratuko da.

Tokiko Kontu-hartzaileak egindako kalkuluak eta burututako doikuntzak zehaztu beharko ditu bere txostenean, aurrekontuko gastu- eta sarrera-egoerei buruzko 1etik 9ra arteko kapituluetak datuak oinarritzat hartuz, Kontabilitate Nazionaleko terminoetan definituta, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Kontu-hartzaileak erabilera ez finantzarioek Barne Produktu Gordinaren erreferentzia-tasa gainditzen ez dutela egiaztatu beharko du, behin zorraren interesak, administrazioen transferentzia finalistak eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak kenduta.

Kontu-hartzaileak defizit eta zor publikoaren muga barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena ebaluatu egin beharko du, Europako Araudian eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

LAUGARRENA. Aurrekontu-oreka gastuen aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak eta sarreren aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak alderatzean lortzen da. Aurrekontu egonkortasunerako helburua egiturazko oreka- edo superabit-egoera batekin identifikatuko da.

Egonkortasunari buruzko printzipioa betetzen ez bada, Ekonomia eta Finantza Plan bat egin beharko da, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 21. eta 23. artikuluetan eta Arabako Tokiko Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7. artikuluan xedatuaren arabera.

BOSGARRENA. Gastuaren araua kalkulatzeko gastu zenbakarriaren aldaketak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratutako Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa ez duela gainditzen egiaztatuko da.

2018ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

SEIGARRENA. Finantza iraunkortasuna bete den egiaztatzeko oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri direla egiaztatuko da.

Aurrekontu-aplikazio berri bat sortzen da:

AURREKONTU- APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	Aurrekontuan sartua
338.226.010	KUADRILA EGUNA 30 JUNIO	2.400,00



finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada.

ZAZPIGARRENA. *Horri dagokionez, lortutako emaitzaren berri eman behar da:*

Ondorio modura, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 32. artikuluekin bat etorriz, Udal honek aukera dauka 2017ko Diru-zaintzako Soberakin Likidoarekin finantzatutako kreditu gehigarriaren espedienteak onartzeko, izan ere, ez du amortizatzeke dauden mailegurik.

2018ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

Haatik, finantza iraunkortasunaren helburua betetzeari dagokionez, oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri diren ikusiz egiaztatu behar dena, kontu-hartzaitza honek espediente honetan aipatzen den gastuak finantza iraunkortasunean eragina izan dezakeela jakinarazten du:

Aurrekontu-aplikazio berri bat sortzen da:

<i>AURREKONTU- APLIKAZIOA</i>	<i>KONTZEPTUA</i>	<i>Aurrekontua n sartua</i>
<i>338.226.010</i>	<i>KUADRILA EGUNA 30 JUNIO</i>	<i>2.400,00</i>

finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada.

Egokitzat jotzen da txosten hau Udalbatzari jakinaraztea, inguruabar hori adieraziz. “

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

7.- 2018ko bigarren hiruhilekoko “ordainketarako batez besteko epealdia” txostenaren berri ematea.

Alkatea: 28,83 egun dira.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

8.- 2018. ekitaldiko bigarren hiruhilekoko aurrekontu-informazioaren berri ematea.

Alkatea: hori da duzuen.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

9.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 109 eta 150 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Unai Gotxi Kastrexana: dekretuak berrikusiz, arreta eman dit batek, ekainaren 13koak, 122 zenbakidunak zehazki, auzotar batek informazioa eskuratzeko baimen bati buruzkoa, ez dakit, zer den galdetu nahi nuen.

Alkatea: 122?

Unai Gotxi Kastrexana: 122, ekainaren 13koa.

Joseba Elejalde Ribacoba: Vallerena, Vallerena da.

Unai Gotxi Kastrexana: informazioa eskuratzeko auzotar batek eskatutako baimena da, eta ez dut ulertzen zergatik egiten den Alkatetzako dekretu bidez.

Alkatea: bada, kontuan izanik administrazioarekiko auzi bat dela, Alkatetzako dekretu bidez egitea erabaki da.

Unai Gotxi Kastrexana: eta, era berean, galdetu nahi nuen informazioa eskuratzeko eskubideari buruzko Agentziatik iritsi zaigun gutun batekin zerikusia duen.

Alkatea: ez, honek ez.

Unai Gotxi Kastrexana: Honek ez?

Alkatea: ez. Honek ez. Hau beste bat da.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Unai Gotxi Kastrexana: Eta baimenduko zaio?

Alkatea: beti baimendu izan da.

Unai Gotxi Kastrexana: informazioa eskuratzeko agentzia etor dadin zer egin behar dugun esatera...

Alkatea: bada espedienteetara beti baimendu izan da sarbidea. Beste gauza bat da ez bultzatzea batek nahiko lukeen bizkortasunarekin, baina espedienteetarako sarbideak hor daude.

Unai Gotxi Kastrexana: arreta eman digute dagoeneko.

Alkatea: ongi, eta? espedienterako sarbidea eman diogu. Sekula ez dugu ukatu ordea.

Unai Gotxi Kastrexana: gutunean ez da gauza bera esaten.

Alkatea: ongi, ongi iruditzen zait.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarretan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.